

Ezpalak

JON TORNER

Topatu.info berritua martxan da

ABIAN DA BERRIZ gazteen komunikazioan erreferentzia bihurtzeko helburuarekin sortu zen topatu.info webgunea. “Herri eta auzoetako gazte proiektu komunikatibo anitzak izan behar dira ardatz, eta Topatu.info horien guztien topaleku. Komunikazio eredu herritarra garatu beharra daukagu”, diote sustatzaileek. Jendeak bere proposamenak egiteko, norberak intereseko albisteak idatzi eta bidaltzeko, eta eztabaidatzeko guneak presatu dituzte.



Lazkaoko beneditarren artxibo berria ireki dute


HILAREN HASIERAN inauguratu zuten Lazkaoko (Gipuzkoa) Aita Beneditarren Artxibategi Historikoa- ren eraikin berria. Joan Joxe Agirrek azken berrogei urteetan egindako bilketa lanaren fruitu da artxibategian dagoen Euskal Herriko ondare dokumental aberatsa. Frankismo garaitik gaur egunera arte bildutako material ugari jaso dute gordailuan: pegatinak, afixak, liburuak, aldizkariak...

Onintza Enbeita, Miren Amuriza, Beñat Ugarte-txea, Etxahun Lekue, Jone Uria, Arkaitz Estiballes, Eneko Abasolo ‘Abarkas’ eta Peio Ormazabal bertso-lariek kantatuko dute Bizkaiko Txapelketako finalean, hilaren 19an Barakaldoko BEC aretoan.

Ivan Sverko 25 urteko kroaziarrak irabazi du Arrasate Hiria Nazioarteko Akordeoi Lehiaketa. Bederatzi finalista lehiatu ziren Amaia Udal Antzokian. Arrasaten egin dira Gipuzkoako lehiaketak ere. Seniorren mailan Maria Zubimendi zumaiarra gailendu da.

Joan Mari Torrealdaik kazetari eta idazleak jaso du Bizkaiko Foru Aldundiak banatzen duen Lauaxeta Saria, euskararen eta euskal kulturaren alde egindako lanagatik. Saria hartu ondoren egin zuen hitzaldian, Euskal Biblioteka sortzearen beharra azpimarratu zuen Torrealdaik.

Mikel Orbegozo euskal presoak eginiko *Preso nago* komiki liburua aurkeztu du Ataramiñek. Espetxeko bizi-moduaz ari da Orbegozo, “barneko sentipenetaz, gauza txikienetaz ere, baina baita espetxeetan isla duen gure herriaren aurkako estrategia errepresiboaz”. Ikuspuntu ironikotik eta umore puntu batekin egin dio so donostiar- rrek kartzeletako errealitateari.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

TEUSA

ERAIKINAK ZAHARBERRITZEKO TEKNIKAK
TÉCNICAS DE RESTAURACIÓN DE EDIFICIOS

Olmos pasealekua 14, 5. solairua 20016 DONOSTIA
Tel: 943 401340 · Fax: 943 401511
teusa@teusa.com · www.teusa.com

